

Jon Maiaren *Kantu bat gara egongo da Lasarte Aretoan*

13. orrialdea

Kolazinoko Mendi Eguneko lasterketarako atzerakontua

Martiaren 19an izango da Bedian. Bizkaiko Mendizaleen Federazinoko bakarkako eta taldekako txapelketak jokatu dira eta Euskal Mendizale Koparako be puntuagarriak izango dira 24 eta 16 kilometroko lasterketak. **11. orrialdea**



Sanjosetako bertso saioa martiaren 19an Lasarte Aretoan

12. orrialdea

Mendibilen atzen diskoaren kantaldien jireak segiduten dau

Oin arte, hamabi kontzertu inguru emon dauz.

Gontzal Mendibilek ez ebalak kontzertutetan hainbeste-ko publikoa izatea espero, dino. Izan be, Joan Gurutzekoa, XVI. mendeko frailearen poema musikatuak dakar kantaldiotan eta printzipioz ez irudian jente askorik, batez be jente gazterik, erakarriko ebanik. Zeanurikoaren kontzertuetara espero baino jente gehiago hurreratu da eta Santiago de Compostelan eta Avilan kantaldiok egiteko proposamenak jaso dauz.

Horrezaz gainera, Arizmendi-rieta kooperatiben ideologoaren gaineko musikala prestatzen dabil. **9. orrialdea**



Ekintza ugari eratu ditue Korrika Kulturalean



Abiatu da Korrika Kulturala. Oingo hilean hainbat ekitaldi egongo dira, Korrika jaiak, bertsoak, kontzertuak eta umeentzako ikuskizunak, tartean. AEK-koek prestaketa lanak jarraituten dabe. Oindino badago aukerea Arratian kilometro bat erosteko edo beste moduren baten lagunduteko. **6. orrialdea**

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

M8aren inguruko programazinoa martia amaitu arte luzatuko da

La Basuren kontzertua Arantzazun, Irantzu Varelaren bakarriketea Lemoan eta Saioa Alkaiza eta Onintza Enbeita bertsolariak bertso afaria Artean dira oingo hamabostaldirako programauta dagozan kultur ekintza feminista batzuk. **5. orrialdea**

EKINEAN ZENTROA

Gazteekin esku-hartzea:

- Ikasketa zailtasunak
- Jarrera arazoak
- Autoestimua
- Familia gaztazkak
- Erlazio sozialak

Testuinguru guztiekin elkarlanean

Gurasoentzako laguntza programa

Zailtasunei aurre egiteko pautak.

Lehendakari Agirre 4, Igorre (Herriko gainean)

652 702 650 · maitealdekoa@gmail.com

IGORRE

Ines Medina pintorearen ikastaroa berreskuratu dau Igorrek

Hamaika urte daroaz Ines Medina pintore ezagunak arte plastikoak irakasten eta artista barrien sormena bultzatzen Igorren. Urte biko etenaldiaren ostean, ilusinoz eta gogoz ekin deusie ikasleek zein irakasleak. Denpora tarte honetan, erakusketa garrantzitsuak egin ditu Medinak; tartean, bere ibilbidea erakusten ebana Montehermoson. **9. orrialdea**



IGORRE

Espainiako Kilometro Bertikala eta Euskadiko Trail Txapelketea irabazi dauz Onditz Iturbek

Martiaren 12an jokatu zan Espainiako Kilometro Bertikala Las Hurdes-en eta Onditz Iturbek, 47 minutu eta 35 segundoko denporeagaz irabazi eban proba. Espainiako Kilometro Bertikaleko beste domina bat be ekarri eban Iturbek, taldekakoa, Euskal Selektinoak irabazi eban eta.

Aurreko domekan, Euskadiko Trail Txapelketea jokatu zan Urretxu eta Zumarraga artean eta 23 kilometroko proba hau be irabazi eban igorretarrak. **10. orrialdea**

Literatura txokoa

LANIGREDO

Lanigredo erresuma ospela da. Ez dago kolorerik. Horrek mapa zehatza ixten deusku, non ibaiak baltzez, gauak zuriz. Liburu honen birtutea horixe da, hankaz gora ixtea errealidadea, etxe ilunen eta tantakada grisen bildumea. Kedarrez dator idatzita liburua, egileak, Larraitz Loizatek, dinoskunez: "Gure gorputzetik azala kendu ezkerro, ez legoke alderik zu eta nire artean. Emozinoa baino ez litxakigu geratuko, itzalak baino ez ginake. *Lanigredo* gure moduko izakiek osatzen dabe". Argazki bilduma ederra da *Lanigredo*, txirripiztadaka betea, mundu bat bere horretan, hutsuneei eta unibersoer buruz dabilana, sinpletasunean konplejua, udako hasperen bat ala udagoieneko gerizpe

bat, ala neguko hego haizea ala udabarrian zuri-baltzean loratuten dan lilia beste. *Lanigredo* argazki liburu bat ez eze, guk inoz izan dogun dardarizoa da, etxe ez atsegin besteko gozoa. Kaleak, argiak, atmosferak, hezetasunak, urtekera bako gelak, eta arpegi bako lekuak. Argazkigintzeak badauka beste arpegi bat eta sarri ez da irribarretsua, baina duda barik, hunkigarria. Hutsak, mamia ez, baina badaukalako zeresana.

@fantomastxiki



Larraitz Loizate

Lanigredo

Autoekoiztua, 2021

Laguntzailea Noctis Photo Books

68 orrialde eskuz josiak

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Martiaren 14tik 20ra

Rodriguez Martinez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09 eta 688 635 154

22:00etatik 09:00etara

Ruiz Golvano. Amorebieta-Etxano.

Martiaren 21etik 27ra

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15
Tel.: 94 673 93 22 eta 609 402 908

22:00etatik 09:00etara

Goiria Montoya. Amorebieta-Etxano.

Martiaren 28tik apirilaren 3ra

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7
Tel.: 94 631 73 11 eta 629 463 048

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara

Zoco Robles Miren Nekane. Urbi 15. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 600 74 63

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 01 85

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Arratiako Udalen

Mankomunitatea 94 631 17 17 /
mankomunitatea.arratia@bizkaia.org

Gorbeialde Landa

Garapenerako Alkartea

94 631 55 25 / gorbeialde@gorbeialdea.com

Areatzako Parketxea 94 673 92 79

IKE 94 673 62 51 / kulturetxea@igorre.net

Euskotren 94 433 33 33 / euskotren.eus

Areatzako Notariotza 94 673 92 26

Errota Fundazioa

688 854 543 / info@errota.eus

Arratiako Musika Eskola

94 631 73 52 / www.arratiakomusikaeskola.eu

Bizkaibus 94 612 55 55

3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro. Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengoa

05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua

22:00etan. Zapatuetan: Lehenengoa

05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

3911 Linea. Bilbo-Galdakao

Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 22:00etara orduro. Zapatu eta domeketan Durangoraino.

Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era orduro.

Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik

21:10era orduro. Zapatuetan: 06:30etik

21:30era orduro. Jaiegunetan: 07:30etik

21:30era orduro.

3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango-Ermua-Eibar

Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 22:30era orduro.

Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik

21:00etara orduro. Zapatuetan: 06:20tik

21:20era orduro.

Jaiegunetan: 07:20tik 21:20era orduro.

3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Ubideetik. Lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.

Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik

21:00etara orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao

Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00;

11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

*Basauriraino bakarrik.

Basauritik Zeberiora. Lanegun eta

zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20.

*Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.

Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 06:50, 08:00, 14:00, 16:00.

Ugaotik Arteara. Lanegun eta zapatuetan: 13:05, 15:30, 20:40.

Igorretik Ugaora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:55ean.

Ugaotik Igorrera. Lanegun eta

zapatuetan: 07:20ean.

Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunetan: 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriagatik Zeberiora. Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urteten dau eta Otxandioakoak 16:00etan. Zapatuetan:

Ubidekoak 09:00etan urteten dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urteten

dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan urteten

dau Gasteizetik eta Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urteten

dau Gasteizetik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urteten dau Gasteizetik.

Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea. Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea. Tel.: 94 673 90 13. E-posta: begitu@begitu.eus. Webgunea: www.begitu.eus. Zuzendaria eta publizidade arduraduna: Iñigo Iruarizaga. Tel.: 649 979 115. E-posta: inigoirua@begitu.eus. Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Tel.: 649 979 112. E-posta: beazpiri@begitu.eus. Erredakzinoa: Asier Abrisketa eta Beatriz Azpiri. Webgunearen arduraduna: Asier Abrisketa. Tel.: 626 647 923. E-posta: asierabrisketa@begitu.eus. Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga. Banaketea: Garbikuzi enpresea (Arantzazu, Areatza, Artea, Bedia, Dima, Lemoa, Ubide, Zeanuri eta Zeberio) eta Eguzkiñe Zuluaga (Igorre). Tiradea: 7.300 ale. Inprimategia: Iparragirre Editoriala. Facebook: Begitu Aldizkaria. Twitter: @BegituEus Instagram: @begitu.eus



Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkartearenak dira, baina partekatu daitezke Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa). Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikatu, eraldatu daitezke, beti be iturria aitatzu eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatzeke.



Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:



ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskeronak, hausnarketak, burutazinoak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratuteko derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea
Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutuna:
begitu@begitu.eus

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: *begitu@begitu.eus* helbidera.

Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

Aner eta Leire kontzertu batera joan dira Kiñu Gaztetxera, gustetan jakien taldean kankaz jantzan egitera. Baia Anerrek, jantzan egin barik, beste edozein gauza egin gurako leuke Leiregaz...

Leire: (Jantzan) A ze jente partidea!
Aner: Binkel! Galazota taldea dona! Hasi barriten jabizena, baia ononak!
Leire: Giro itzela jaok, benetan be!
Aner: Beitiñe! Rock zaharran trazea jekona musikeak! Baia geur egungoa be. Gaztetxean holango zuzenekoak ikusteko aukera gitxi egoten dona! Gustetan jatana?
Leire: Bai! Asko barrez!
Aner: Itxure baten, oin gitxi atara jauriena diskoa. Diskoa bera, ona dona, baia direktoan askozaz hobeak dozana! Kantantea *puto amoa* dona! Sentimentuegaz kantetan jona!
Leire: (Bekan bat gorantz) Bai...
Aner: Portzierto, ze gurona ba? Kalimotxoa? Tabernea ez dona oso urrin egongo. Ene! Etxekoanat bape dirurik... hik badekona arean?
Leire: Aner, hi ez haz jantzan etorri, ezta?
Aner: Hara! Zegeiti galdetuten dostena hori ba?
Leire: Etxakiat ba... berba egiteko gogoakaz etorri hazela emoten jok! kar kar kar!
Aner: Bakiñe (atxakie topau gurean), afaiteko txakoline edan ostein, piti bet mozkortu nona, eta ganera hire ondoan ñaona...
Leire: Tiok ba! Hoa tabernara! Ez itxistek jantzan!
Aner: Kontzertu honiten non ifinten jeuriena tabernea, ba?
Leire: Hi, nik etxoat tabernarik ifini!
Aner: Bai, bajekinat, pregunteu gure ñonan non ifinten deurien!
Leire: Ah, kanpoko partean, sarreran parean edo.
Aner: Elegante, bañoana! Kalimotxoa orduen?
Leire: Baaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaai!!
Aner: Dirue itxikostena?
Leire: Autso! Astun hori!
Aner: A... agur...! (Bere buruen). Kaka zaharra! Leirek harrapau ñona, bajakiñe bere atzeti nabilela. Bff... ligitan ze eskasa nazen... noken!

ERETXIA

Ez suntsituko gaituan gerrarik, ezta zapalduko gaituan bakerik be (I)

Gerreari ezetza eta bakearen defensea beti egon dira *idearium* eta zeregin feministan eta bere internazionalismoaren parte dira, egun "oihu global" deitzean dan horrena.

Artikulu honen izenburua, gerren kontrako ekintza feministetan erabilten dana da. feministen beti egon da gerren kontra, baldintza barik, andra palestinar, afganiar, siriar, irakiar, kolonbiar, kurdu, saharar eta aitatuten segiduko neiken beste herrialde askotako andrei laguntasuna emoten. Egun, Ukrainako herritarren testigantzak minez entzunda eta Errusiako inbasinoak sortzean dauan hondamendia ikusita, bihotza Ukrainako andrakaz dago, urietan irauten dabenakaz eta seme-alabakaz alde egin behar izan dabenakaz, errefujiadu bihurtuta. Baita, andra bakezale erresurriakaz, gerraren kontrako erresistentzia sareak sortzean dituen andrakaz, Putinen erregimenaren errepresinoari aurre eginez.

Martiaren 8ko manifestazioen bezperetan, Espainiako gobernuan dagozan partiduen arteko polemikak egon ziran, gerrearen gainekoak eta hurrengo manifestazio feministen zentzuaren gaineko adierazpen instituzionalak. Horregaitik, gaiari heldu aurretik, defendiduko dot mobimentu feministearen autonomia bere agenda ezartzeko antolatu eta deitzean dituan manifestazioetan, erakunde eta alderdien esku-hartze barik. Historiak eroan dau mobimentu hau bere autonomiaz sano arduratsua izatera, eta desbardintatzera, eremu instituzionalaren erantzukizuna politika publikoakaz, eta mobimentuarenak.

Gerreari ez! feminismotik zuztar historiko eta internazio-



JUSTA MONTERO
Ekintzaile feministea

nal sakonak ditu eta, zoritxarrez, ibilbide luzea. Dones per dones eta Mujeres de negro taldeek eta bakearen aldeko hainbat plataformek gerrearen aurrean erantzun egin dabe eta gatazkan dagozan herrialdeen arteko andren eta andrakaz laguntza eta hartu-emon sareak sortzearen garrantzia erakutsi dabe. Holan, bultzatu dabe gerrak ez onartzea eta bakearen defensea egotea beti *idearium* eta zeregin feministan eta bere internazionalismoaren parte izatea, egun "oihu globala" deitzean dana.

Androi gerrearen kontra altxatzera eta bakea defendidutera eroaten gaituen errazoiak ugariak dira. Batzuetan, lotu gura izan da ustezko andren izakera bakezale bateri. Kutsu esentzialista nabarmena dauka argudio horrek eta ez nator bat horregaz ez ditu-eta, amatasuna edo erantzule egiten gaiten hartu-emon praktika edo naturaren defensaren gaineko andren esperientzia ugariak kontuan hartzean. Montse Cervera aktibista feminista eta antimilitaristek holan azaldu dau: "ez da androk berez bakezaleak garalako,

personen eta planetaren bizitzaren aldeko apustua egin dogulako baino".

Personen beharrianak eta ondoizatea, eta merkaduen etekinen ordeiz bizitza duinak erdigunean ipinitako apustu horrek espliketari dau logika armamentisteari gaitzespen feministea. Armagintzearen industria, bake denporetan loditzen doa, etekin handiak emoten dituan heriotzearen industria indartsu bihurtu arte. Gaitzespena be, bakearen erretolikeagaz sortzean diran eskalada militaristeki eta estadien segurtasun politikei, ultraeskoia hain irabazi onak emoten deutsezanak, hatan be.

Ikuspegi honegaz eskatzen da diru gitxiago gastu militarerako eta gehiago gastu sozialerako Estaduko aurrekontuetan. Gastu sozialak dira personen benetako beharrianak eta segurtasuna atendidu daikenak, pandemiak oinarritzakoak dirala erakutsi dauzanak: garbitzaile, zahar etxeetako langile, osasun langile, mendeotasunari laguntzea, zaintza lanak eta etxeko gobernuako; eta guztietan, langile gehienak andrazkoak dira.

Baina badago beste oinarritzako osagarri bat, bakea eta gerreari ezezkoreen proposamen feministan: indarkeria. Androk ondo ezetuten doguz indarkerien deuseztatze logikak, kasu honetan indarkeria matxistak, eta gerrak, herriak menderatzea eta indarkeria patriarkala zabaltzea bilatzen dauan indarkeria orokortuaren berretzaile maximoa dira. Penagarria izan arren, zorionez askotan dokumentau ahal izan dan moduan, andrak gerrako harrapakin bihurtzen dira. Balkaneetako gerran gertatutako andren tragedia argitara urten arte etxon behar izan zan, bortxaketea gerra krimintzat joteko; izan be, epika gerrazaleak indarkeriaren kulturara eroaten dau ezinbestez eta ez dago ezer feminismoaren proposamenetik urrunago egon daitekenik.

****ctxt.es-en argitaratutako artikulua eta erredakzinoan itzulia***

NETFLIX

EUSKARAZ

WWW.PANTAILAKEUSKARAZ.EUS

EUSKARAZKO IKUS-ENTZUNEZKOEN ALDEKO EKIMENA

Sinatu eskaerea helbide honetan:

<https://www.change.org/p/basque-governments-netflix-netflix-euskaraz-in-basque-en-euskera>

LUMATUTEN



IDOIA EIZMENDI

Bardintasun politikak ezbaian (II)

Bardintasunean dirua xahutzen dala uste badozu, jakin egizu EAEn erakunde publikoek, batez beste, aurrekontu orokorren %0,5a bideratzen dabela bardintasun politiketara. Ez dirudi despilfarro handiegia, andra eta gizonen artean dagoan arrakala murriztea helburu daukien politikak izanda. Eta batzuek uko egin deusien arren, arrakala hori bizitzaren esparru guztietan emoten da: ordain-sarietan, partehartze politikoan, aisialdian, lan banaketan, jaubetzan, hezkuntzan, zaintzaren arduraren, pensioen ordainketan...

Horrez gainera, kontuan hartu %0,5 horreen onuradunak ez dirala andrak soilik. Zaintzarako zerbitzu publikoak, gazteen-atzeko sexu heziketa programak, urbanismo inklusiboagoa, edota hezkuntza benetan parekidea izatea jente-arte osoari eragiten

deusien politikak dira.

Oin arte esandakoak ez dau esan gura instituzinoek bardintasunaren inguruan egiten dabenean lanagaz bat natorrela, ez guztiz, behintzat. Indarkeria matxistaren inguruko protokoloak daukaguz herri eta mankomunidade guztietan, bardintasun planak gero eta esparru gehiagotara zabaltzen dira. Baina, ez da nahikoa planak, protokoloak eta legeak onartzea, tresna honeen eraginkortasun faltea nabaria danean. Bardintasun politiken inpaktu positiboa ukaezina dan arren, egoerak erakusten deusku genero arrakalak ez dirala lar murriztu, parekidea dan gizartea ametsa baino ez dala. Egoera eraldatzeko, benetako konpromiso politikoa beharrezkoa da eta, horregaz batera, jendarte antolatua.

Aurtengo Martiaren 8an, barriro kaleratu gara agenda feministako aldarrikapenak, oindino be, behar-beharrezko ikusten doguzalako.

ZERTZEAN



SAIOA LARREA



BEGI TXINDORRA

Lasterketa berezia da Lilatoia. Jakina! Han be parte hartzean dabe atletak eta ahalegintzen dira irabazten edo marka onak egiten. Eta egiten dabez, duda barik. Baina berezia egiten dauana 5 kilometroko andren lasterketa hau da lasterketan zehar egoten dan jai giro feministea: musikea, batukadea eta aldarrikapenak, ibilbidean zehar. Helmugara danak heltzean dira irribarre bat arpegian daukiela, pozik parte hartu eta karrera amaitu izanagaitik. Dino Alison Bechdelek galapan egitea dala depresinoaren kontrako botikarik onena. Eta hori dino, nik dakidala behintzat, inoz Lilatoian parte hartu barik!

Argazkian ikusi daiteken kuadrillatxo honek parte hartu eban 32. Lilatoian. Hiruk galapan egin eben, aurtengo edizinoko beste 4.019 andrakaz batera, eta beste hirurak "botilero" lanak egin ebezan, lasterkariei lagunduten. Elegante!





Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Gorosti
LORAZAINTZA

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com



BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17 Arkaitz 677 46 40 91
Eduardo 647 72 96 24 Golder 666 58 20 06

Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com



Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia

Bidebarri 1. behea
48140 Igone-Bilakaia
T. 94 631 50 39
Kalejatu Zerbete: 901
R.P.S. 21/06

LEMOA

Lemoako dendetan euskerea erabilteak saria eukiko dau

Udaleko Euskera Zerbitzuak eta herriko 22 komertzioek ipini dabe martxan kanpaina, euskereari eta merkataritzeari bultzadea emoteko helburuagaz.

Erredakzinoa

Kanpaina martiaren 1ean hasi zan eta apirilaren 8ra arte luzatuko da.

Parte hartzean daben komertzioetan, euskeraz eskatzen eta agurtzen diran bezeroei, hazkatzeko txartel bat emongo deusez. Txartel horreetan 500 saritik gora dagoz. Erosketa edo produktu batzuetan deskontuak, armozuak eta bazkariak dagoz sarien artean. Sariak ez daukien txartelak, Urduñako bainuetxean persona birentzako egonaldi biren zozketan sartuko dira.

"Kanpaina honen bidez, kontsumitzaile eta dendari/tabernarien artean euskerearen erabilera sustatu gura da. Lemoan dagozan hizkuntza ohituretan eragin gura da egitasmo honegaz, eta herriko merkataria zein ostalariek babes zabala eskaini deusez" azaldu eban Saioa Elejabarrieta alkateak.

Partaideak

Kanpainan parte hartzean daben komertzioak hurrengoak dira:

Amorrortu jatetxea, Arraibigane, Atxeta taberna, Bizkarra okindegia, Ezkur, Farmazia, Geltokia taberna, Giaconi ile-apaindegia, Intzuntza harategia, Kresala taberna, Laiane ile-apaindegia, Lemoa Doner Kebab, Lemoako Batzokia, Lemones taberna, Lezat estetika zentroa, Lur 2000, Luzea ile-apaindegia, Mailuki taberna, Josier mertzeria, Lemoa okindegia, Tresnak eta La Herradura taberna.



ARANTZAZU

Arantzazuko Udalak lizitazinora aterako dau Herriko Taberna

Erredakzinoa

Arantzazuko Herriko Tabernako konsezioa aldatuteko, Arantzazuko Udalak lizitazinora aterako dau martiaren 15ean. Honetarako interesa daukienak "Udalera jo leikie informazio gehiago eske" adierazo dau Asier Aburto alkateak.

"Herriko Tabernak suite barria dauka, industrial, taberna plazan bertan dago; umeak inguruan olgetako inguru aiposean. Terraza ederra inguruan ipinteko aukera be badago" gehitu dau alkateak.



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Andren eskubideen aldeko rap kontzertua, bakarrizketea, bertso afaria eta tailerrak oingo hamabostaldian

Martiaren 8aren inguruko programazinoa martia amaitu arte luzatuko da. Aldarrikapen ekintzak hilaren hasieran izan baziran be, kultura egitarauak segiduko dau hilaren bigarren hamabostaldian.

Erredakzinoa

Hamabostaldi honetako lehenengoa Arantzazun izango da, hilaren 18an, 19:00etan, Herriko Tabernan. Han, La Basu Etxebarriko rap abeslariak kontzertua eskainiko dau. La Basu, *Remixes* (2013); *Aire es vida* (2015); *Izotz erregina* (2016) eta *Ni naiz izotz erregina* (2017) diskoak ditu kalean eta Aneguriagaz batera, hip-hopetan andren aldeko Esquina Femenina proiektua sortu eban.

Hurrengo domekan, hilak 20, 19:00etan, barre batzuk egiteko aukera egongo da Lemoako Kotxe-pin Kultur Etxean Irantzu Varelaren *Villana* bakarrizketeagaz. *Villana* "bakarrizketa maltzurra da, deliturik ez egiteagaitik barre egiteko, pentsau, baina gaiztoa beste bat dala emoteko esan ez dozuzan gauzak entzuteko". Irantzu Varela kazetari eta ekintzaile feminista da eta umorean ibilbide luzea dauka.

Martiaren 25 eta 26an, Ilgoran Jabekuntza Eskolako *¿Cómo estar en grupos y no morir en el intento?* tailerra emongo dau Areatzan Mar Garrotek. Lehenengo saioa, barikukoa, 18:00etatik 20:00etara izango da eta hurrengo eguneko 11:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 18:30era. Tailer honetan zelan lan egin sarean eta kolektiboan nekatu barik ikasiko dabe partaideek.

Zapato horretan bertan, Artean, Kafrangak talde feministek antolatuta, bertso afari feministea egongo da Ustrukue jatetxean, 21:00etan. Saioa

Alkaiza 2021eko Nafarroako Bertsolari txapeldunak eta Onintza Enbeita, 2018ko Bizkaiko Bertsolari txapeldunak botako ditue bertsoak. Marta Ugarte arteaztarak egingo ditu gai-emoile beharrak. Txartelak hilaren 21era arte egongo dira salgai Herriko Bentan, Izar Zurian eta Ustrukuen.



BEDIA

Udal ikastaroak emoteko lokal bat atonduko da

Erredakzinoa

Martiaren 3an onartu ziran Bedia 2022ko Udal kontuak EAJ-PNVren aldeko botoakaz eta EH Bilduren abstenzinoagaz. Aurten, 1.463.207,25 euro kudeatuko ditu Udalak, igaz baino %17 gehiago.

Inbersinoetarako diru partida garrantzitsuak dagoz, igaz baino 226.000 euro gehiago izango ditualako Bedia aurten; inbersinoetarako 470.567 euro, hain zuzen be. Hortik diru partida bat, Udalak Errekaondo kalean daukan lokal bat atonduteko izango da, erabileran anitzeko gela moduan erabili ahal izateko. Prestaketa horreek egiteko 63.203 euro dagoz. Han Udalak eraturten dituan ikastaroak emoteko asmoa dago: yoga, pilates, zumba eta abar. "Lehen horreek, eskoletan egiten ziran

eta oin frontoian baina ez da leku egokia" azaldu deuto Aitor Sorriketa Bedia alkateak begituri.

Egingo diran beste inbersino batzuk, Eroso-Ugarten dagoan bide bat konpondu, energia eraginkortasunaren 7. faseari (44.746) ekin, eta saneamenturik ez daukan gune bateko saneamentua (86.400 euro) ipini. HAPO be lizitauko da aurten, eta horretarako 167.300 euroko diru partidea dago.

Aurrekontuak egiteko orduan, behin gastu fijoak kenduta, lehentasuna, herriari kohesinoa emon ahal deusezan diru partidei emoten deusezela dino Sorriketak. Holan, euskera arloan 25.000 euro gastetako asmoa dauka Udalak; Gazterian 38.264; urtean zehar antolatuten diran ekintza kulturaletarako 87.378

euro dagoz; edadekoen arloan, 13.450 euro eta gizon eta andren arteko aukera bardintasuna sustatzeko, 12.000 euro.

EH Bilduren abstenzinoa

EH Bilduk abstenzinoa emon eban. "Ez daukagu ezer kontra, baina ezer alde be ez. Horregaitik gure abstenzinoa. Honek ez dira gure aurrekontuak" azaldu deute begituri EH Bildutik.



IGORRE

Igorreko Velatia taldeko lantegian behin-behinekotasunak dakarren prekariedadea salatu dau LABek

Erredakzinoa

Igorreko Velatia taldeko lantegiko aldi baterakotasun handiaren aurrean, LAB sindikatuak mobilizazioa egin eban martiaren 3an, Bilbon, Lan Ikuskaritzarean aurrean, eta salaketa bat aurkeztu eban bertan. Sindikatuaren arabera, egoera hau ez da legezkoa eta prekaridade handia dakar langileentzat.

Igorreko lantegian, guztira dagozan 500 langileetatik 150 langile baino gehiago dira behin-behinekoak. Lantegi hori hiru enpresatan bananduta dago (Tecnichapa, Ormazabal eta OPA), eta "behin-behineko langileen kopurua enpresa bakotxeko langileek egin dituen burruken arabera da. Adibidez, Tecnichapan, enpresek behin-behineko langileen

%60ren finkatze prozesua hasi dau, plantillako burruken ondorioz. Taldeko beste enpresa batzuetan, oster, kontratu finkoen kopurua hutsaren hurrengo da. Ormazabalen, adibidez, behin-behineko 9 langile finko bihurtzeko proposamena egin dau, eta 90 dira behin-behineko langileak guztira" dino sindikatutik.

LABen arabera, enpresek ira-

bazi handiak ditu. "Lotsagarria iruditzen jaku 500 milioi euro baino gehiago irabazten dituan enpresa batek %30 inguruko behin-behinekotasuna izatea. Gainera, atzen urteotan, ekoizpena eta etekinak handitu ahala, behin-behineko langileen ehunekoa handitu egin da, argi eta garbi egiturazkoak diran lanpostuak prekarizauz" salatu dau LABek.



ARRATIA

Militantziarako eta taldeetan lan egiteko Jabekuntza eskolako tailerra egingo dabe Areatzan

Erredakzinoa

Zelan egin lan sarean eta kolektiboan nekatu barik? Ilgoran Arratiako Andren Jabekuntza Eskoleak antolatutako *¿Cómo estar en grupos y no morir en el intento?* tailerrak pistak emon gura deusez partaideei taldeetan lan egiteko erre barik. Tailerra martiaren 25 eta 26an izango da, Areatzako udaletxean, Mar Garrote formatzailearen eskutik. Izena hilaren 18ra arte emon daiteke Arratiako Udalen Makomundean edo udaletxeetan.

Taldeetan lan egitean, militantzia tartean, sarean zein aurrez aurrekoan, arazo batzuk errepeti-

du egiten dira, behin eta barriro, arazo berberak, nekea eta asperdurea eraginez. "Bilera baten beti bardinak berbarik ez egitea lortzean dogu? Talde baten helburuak eta personak aldi berean zaintzean doguz? Badaukagu idearik bilera eraginkor bat presatzeko? Gatazkak zeozer personalizat edo negatibotzat hartzean doguz? Konponbide desbardinak eta sortzaileak aztertzen eta pentsetan doguz? Zelan komuniketan naz nire kideakaz? Zelan zaintzean doguz lankidetzeta eta lankidetzeta espazioak?". Galdera honeen hausnarketatik abiatuta, partaideek pistak eta kakoak topauko ditue taldeetan egoteko.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Aurrera doaz Korrikarako prestaketa beharrak

Aurreko urteetako kilometro erosleakaz kontaktuan dagoz AEK-koak, baina "oindino baten bat animetan bada kilometroa erostra edo beste moduren baten laguntzera, ondo etorri" dino Lurdes Ortega Igorreko Kubulu Euskaltegiko irakasleak.

Erredakzinoa

Antolaketa handia behar dau Korrikak eta jente asko dago beharrean bide osoan zehar dana ondo urten daiten. "Aurten be Euskaltegiko irakasle batzuk joango dira karrerara: pare bat furgonetan, bat prensa taldean... Eta gainontzekook hemen Arratiakoa prestatzen". Joana Txarterina eta Igor Elordui joango dira furgonetan eta prensa taldean Ane Elordi egongo da.

Aurten egunez eta aste barruan pasauko da lasterketea eta hori ona izango dan ala ez, ez dago jakiterik alde z aurretik; jente askoren lanorduetan zeharkatuko daualako Korrikak Arratia. Ha-ta guzti be, Euskaltegiko ikasle zein irakasleak egongo dira Arratiako kilometro guztietan ez bada, gehienetan, lekukoa eroaten dabenekaz galapan. "Guri eguna karreran joango jaku. Irakasleok karrera osoan egongo gara. Euskaltegi aurrean egongo da lekuko aldaketea eta hor ikasleren batek hartuko dau. Oindino ez dakigu nok". Beti saiatzen dirala zeozer

esanguratsua topatzen dino Ortega. "Ikaslerik gazteena eta zaharrena, edo... beti zeozer berezia baina oindino ez dakigu. Eta izan daiteke zozketea, beste barik".

Korrika Kulturala

Korrika Kulturalako ekintza bi egon dira daborduko Areatzan; Gozategiren kontzertua eta Mikel Etxabururen *Oroitzen hondarrak nota txikietan* emonaldi poetikomusikala. Datozen ekintzen artean dago Areatzan, martiaren 18an, 18:00etan, Arratiako Berbalagunek antolatuta *Uhinak* dokumentalaren emonaldia eta ostean Korrikaren inguruko barriketaldia Udal Aretuan. Korrika materiala be salduko da bertan.

Egun berean Zeberion Korrika jaia egingo dabe 18:00etatik aurrera herriko plazan. Bertan, Korrikaren aurkezpena egingo da, eskolako umeek bertsoak botako dabez, play-backa, grafitia, Korrika erropeagaz pasarela, jatekoa eta edatekoa eta jolasak egongo dira. Nafarroa Kantuz taldeak ipiniko dau musikea.

Hurrengo egunean, San Jo-



setako bertso saioa egongo da Igorren 18:00etan eta aurten, urteroko eta arrakasta handiko jarduera hori Korrika Kulturalaren programazino barruan dago. Beste jarduera bat be egongo da Igorren, berenberegi Korrika Kulturalerako antolatutakoa: martiaren 25ean, 20:30ean, Jon Maiaren *Kantu bat gara* kontzertua ekarriko dau Lasarte Aretora, hain zuzen be.

Lemoan, martiaren 26an Ko-

rikari eguna ospatuko da. Eguerdian hasita, sagardao dastaketea Hartaguzti Lemoako sagardaoagaz bazkaria eta jolasak egongo dira. Arratierrek etxetik bazkaria eroan eta jaigiroan bazkalduko dabe. Musika jantza poteoa eta Korrika denda be egongo dira eta lekukoak eta apaingarriak sortzeako gunea be egongo da. Aprilaren 6an, be, Korrika pasau ostean, ludotekeagaz batera Lemoan zeozer egiteko asmoa dago.

Diman martiaren 26an, Ixabel Agirresaroberen *Ezina ekinez egi-na* ipuin kontaketea egongo da 19:00etan eskolako kameran, hilaren 29an, oster, *Zorionak Mari-motots!* ikuskizuna egongo da frontoian arrastian Korrika Kulturalan.

Bedian, martiaren 31n 17:00etatik 19:00etara Korrika tailerra egongo da Ludotekan. Hurrengo egunean, aprilak 1, 17:15ean hasita, tailerrak, Korrika Txiki eta umeentzako *Zirkoteke* ikuskizuna egongo da 19:00etan, eta 20:00etan ardao dastaketea. Hurrengo egunean, Ganzabalek antolatuta, umeakaz egiteko pentsauta dagoan ibilalditxo bat be egingo da, "beti Arratiako mendi batera joan izan gara, baina aurten Orozkoro joango gara" dino Ortegak.

Artean, Zeanurin eta beste herrietan oindino ekintzak zehaztu barik dagozala dino AEK-koak.

DIMA

Tailerrak eta antzerkia umeei askatasun haizea emoteko

Erredakzinoa

Martiaren 20an, Txikitatik Askatasunera izeneko jaia antolatu dau Diman AskeBizi Arratien taldeak, Dimako Guraso Elkartearen laguntzeagaz. Umeentzako tailerrak, Antxo eta Pantxa pailazoak, txokolatea eta jai giroa ez dira faltauko 11:00etatik aurrera frontoi txikian.

COVID-19aren neurriakaz umeak asko sufridu dabela eta sufriduten segiduten dabela eretxita, pozez eta ilusinoz goiz bat pasetako aukerea emon gura izan deusez antolatzailleek. "Konfinamentu garaian 42 egunez, 1.008 orduz, luzaro, luzaroegian etxetik urten barik egon dira umeak. Bigarren mailako herritarizat konsiderau ebezan eta euren garapenari lotutako preminak ez ziran/ez dira kontuan hartu neurri hain gogorak ezartzean, ezta neurriok umeengan egindako kalteak be" dino AskeBizi Arratien taldetik.

Jai txiki honegaz, "hautzaroa ilusinoz, askatasun haizez, erabagiteko gaitasunez, besarkada estuz, konfiantzazko zaintzaz, eskubidez, emozino eta sentimentu osasuntsuz" bete gura dabe domeka goiza.

ARRATIA

EH Bilduk Arratiako osasun zerbitzuen egoera txarra salatu dau

Arratiako EH Bildu eskualdeko osasun zerbitzuen egoereagaitik kezkatuta agertu zan Igorreko osasun zentroaren aurrean martiaren 3an egindako prensaurrekoan. EH Bilduko ordezkariak, Arratiako osasun zerbitzuen egoerea salatu eta Osakidetzari baliabideak ipinteko eskatu eusien. Eskualdeko herri guztietan mozinoak sartuko ditue.



Illart Gumuzio Igorreko alkatea eta Nimbe Arrarte Bediako zinegotzia lehen lerroan eta atzekaldean EH Bilduko ordezkariak.

Erredakzinoa

Illart Gumuzio Igorreko alkatearen arabera, "lehen arretaren aldeko apustua egitea inoz baino garrantzitsuagoa da, eta kontrako norantza ikusten dogu gure eskualdean. Osasun zerbitzuak murrizten dabiz, konsultak zarratuten eta herritarrei zerbitzuak gero eta urrunago jartzen jakiez". EH Bilduren ustez lehen arretan gertatzen dabilana ez da pandemiaren ondorioa, urteetako ebatzi politikoaren ondorioa baino. Arratiako biztanleria gero eta zaharragoa da eta inoz baino gehiago arreta komunitarioaren aldeko apustua egin behar da. Horretarako EH Bilduko ordezkariak herri mailako sare sendoa egituratzea eta lehen arreta erdigunean kokatzea eskatu eban.

Ninbe Arrarte Bediako zinegotziak eskualdeko kasu batzuk aitatu ebazan. Besteak beste, Igorren pediatra faltea egonda be, Lemoakoa Igorrera lekualdatzen dabela esan eban. Horrezaz gainera, Areatza eta Artearen kasuak adierazo ebazan. Herri honeek urteak daroez medikua alkarbananduten eta zerbitzua ez da aldatu nahiz eta herri honeetan 280 biztanle gehiago bizi diran oin. Eta udan edo oporraldietan aurretik abisau barik mediku zerbitzu barik geratzen dira herri honeetan eta Igorrera joan behar

izaten dira. Arantzazun be antzerako egoerea bizi dabe, osasun zentroa pandemia hasi zanetik zarratuta dago eta arreta Igorreko zentrora bideratzen da.

Gabezia horreek salatzeaz gainera, jubilatzeaz dagozan profesionalak ordezkatzeko deia egin eban, hainbat adibide jarritz. Dima, barbarako, erizaina jubilauegin da eta ez dabe ordezkatu. Zeanurin eta Bedian be erizainak jubilatzeaz dagoz eta epe ertainean be herrietako mediku batzuk jubilatuko dira (Lemoa, Igorre eta Igorre-Arantzazu). Guztiak ordezkatu beharko liratekela uste dau EH Bilduk.

Eskualdean espezialistak ez izatea be salatu eban. Arratiako biztanleak mediku espezialistetara (traumatologia, ginekologia eta abar) Galdakaoko anbulatoriora joan behar dira, horrek suposatzen dauan guztiagaz.

Mozinoak
EH Bilduk mozinoak sartuko dituela eskualdeko herri guztietan jakin arazo eban Gumuziok. Mozinoetan ondoko puntu orokorrak eskatuko dabez: herrietako osasun etxeko zerbitzuak oin arteko moduan mantentzea, Eusko Jaurlaritzeari lehen arreta indartzea, Osakidetzari profesional gabeziari aurre egiteko planifikazinoa egitea eta lehen arretan egiturazko postuak finkatzea.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Nafarroako hegoaldeko produktuak erosteko Errigoraren kanpaina martxan

Martiaren 30era arte, Nafarroako hegoaldeko oliba orio, konserba, pasta, arroz eta lekale eskaerak egin daitezke *errigora.eus* webgunean edo 848 871 223 telefonoan.

Erredakzinoa

Produktuak aprilaren 26an helduko dira Arratiara. Erosketea online egin ezkeror, zati bitan ordaintzeko aukerea dago; ezpabere, dana batera eskudirutan be ordaindu daitezke.

Oliba orioa bidoika eta konserba, pasta, arroz eta lekale sortak 12 unidateka saltzean dira. Urtean batzbeste personako 12-15 litro orio, 4-5 kilo pasta, gitxi gorabehera sei kilo lekale eta 10-15 ontzi tomate prijidu gastetan dirala kalkulau dabe Errigorakoek.

Errigora ekimenak, Nafarroako produktuak ekoizlearen jatorrizko prezioan Euskal Herrian saltzea dauka helburu, "Euskal Herrian bidea emonez, euskeratik, euskerarako eta euskeraz".

Konsumidutako eredu aldatu eta euskera indartu
Kanpaina honek helburu bi ditu, bata ekoizpen eta banaketa ereduak aldatutea, elikadura buru-



jaubetzarantza bidea eginaz, eta bestea euskera indartutea. "Eskara honek balio behar dau gero eta handiago izan daiten bestelako ekoizpen ereduaren arabera, landuten dan lur eremuaren zatia eta beste modu baten banandu daiten uzta". Atzen urteotan, kanpotik ekarten ziran produktu batzuk, Nafarroan ekoizten lagundu dabe.

Euskereari jagokonean, oingo kanpainen euskereari ez jako dirurik zuzentzen, ekarpen funzio-

nala egiten jako. Kanpainearen oinarrian ekoizlearengandik konsumitzailearengana produktua gainkostu barik heltzea da eta hori gainkostua litzateke. Hata guzti be, modu bitan egiten deutso ekarpena euskereari: alde batetik ekoizleen euskereagazko konpromisoagaz (etiketak eta ekoizleen webguneak euskeraz, eta ekoizleen enpresetan euskera planak garatzen) eta bestetik, Nafarroa hegoaldean euskerearen posizionamentua hobetuz.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Gerreak kaltetutako personei lagunduteko dirua batzean hasi da Arratiako Caritas

Erredakzinoa

Gerrea salatu eta Ukrainari edo Ukrainako herriari alkartasuna adierazoteko alkarretaratzeak egin dira hainbat herritan. Martiaren 9an, Zeanuri eta Zeberioiko Udalek deitu ebezan konzentrazino isilak udaletxe aurretan. Zeanuriko Udalak ukrainarengan ipini eban fokua, "Ukrainako herriari gure babesa eta alkartasuna adierazoteko", Zeberioiko Udalak barriz "Ukrainaren alde" antolatu eban konzentrazinoa.

Arratiako Eleizeak deituta, Arantzazu, Areatza, Dima, Zeanuri eta Igorren kandelak eskuan eta isilik, alkarretaratzeak egin ebezan herritarrek Gerrarik ez! lemapean, martiaren 2an. Oin Caritas dirua batzean dabil gerreak kaltetutakoei lagunduteko.

Alkartasun ekimenak
Ukrainako Caritasari heldu arazoko deutso Caritas Arratiak larialdi

deiaren bitartez batutako dirua, gerra eremuan dagozan personei lagunduteko, jatekoa, ura eta higieneko gauzakaz. Baita garraio segurua bermatzen be, persona zaurgarrienak leku seguruetara heldu daitezkan. Arratiako Caritasak, Caritas Poloniara be bialduko dau dirua gerratik igesi doazen errefujiaduei lagunduteko. "Igorren, konzentrazino bat egin genduan Gerrarik EZ!

salatuz. Salaketea beharrezkoa da, baina ez da nahikoa. Oin alkartasunaren ordua da. Arratiako parroketan, hurrengo domekan, kutxa batzuk izango dira gure diru alkartasuna batzeako. Gero, Caritasen bitartez, Poloniako eta Ukrainako Caritasera helduko da laguntza hori kaltetuengana, artez artez". Banku bitartez ekarpenak egiteko be bost kontu zenbaki dagoz.



INES MEDINA

Ines Medina: "Deigarria da Igorreko mintegiari barriro ekiteko egon dan indarra, motibazioa, gogoia eta poza"

Hamaika urte daroaz Igorreko Kultur Etxean, Arratia eta kanpotik etorritako ikasleei mintegi edo ikastaroak emoten, arte plastikoetan ibilbide luze eta izen handiko Ines Medina artisteak. COVID-19aren pandemiaren kudeaketearen urte biko etenaldiaren ondoren, zezeilaren 12an ekin eutsien barriro arte mintegiari. Izen emotea zabaldu eta 10 egunetan bete ziran plazak, izan be, urte bi honeetan sortzean jarraitu arren, motibazioz, gogoz eta pozez hartu dabe ikasleek Medinaren arte mintegiaren itzulerea.



Ines Medina.

Erredakzioa

Urte biren ostean, barriro be martxan da Arte Plastikoen bidez benetako sorkuntza-prozesua garatzea mintegia. Geldialdi hori COVID-19ak eta pandemia kudeatzeko araukaitik izan da ala beste errazoi batzuk be egon dira? Hala da bai. COVID-a da nahitaezko errazoiak. Kultur Etxeko Zuzendaritza Teknikoan be aldaketak egon da, baina egungo zuzendaria, Mikel López de la Pinta, nigaz harremanetan ipini zan, Arte Mintegiak abiatuteko aukerea aurreikusi orduko. Momentu haretan, Montehermoso Kulturunean (Gasteiz) erakusketaren kudeaketan nengon buru-belarri, baina 2021eko udan alkatu ginan, 2022aren hasieran martxan ipinteko.

Noz hasi dira eskolak eta noz arte izango dira? Plazak bete egin ziran izena emoteko 10 egunetan, eta nahiz eta aurten salbuespen bat egin eta ikasle bi gehiago hartu, oindino

batzuk itxaron zerrendan geratu dira. Lehenengo klasea zezeilaren 12an izan zan eta martiaren 26an amaituko dogu. Mantendu egin dogu arte mintegiaren izenburua, *Arte Plastikoen bidez benetako sorkuntza-prozesua garatzea* hamaika urte ditualako.

Urte bi honeetan ez zara geldirik egon eta errekonozimenduak jaso eta erakusketa garrantzitsuak egin dozuz. Ez geldirik ez, alderantziz, lan eta lan. 2019ko udan erakusketa proiektu bat aurkeztu neban hainbat euskal erakundetan. New York eta Euskal Herrian, 2007tik 2021era egindako ikerketa lana zan. Montehermosoko arduraduna, pandemia hasi baino egun batzuk lehenago ipini zan harremanetan nigaz, Ur Biltegian, azalera handiko eta arkitektura enblematikoko eraikinean, erakusteko interesa adierazoz. Lan ordu asko behar ziran tamainu eta teknika desbardinatuko obra askoren aukeraketa egiteko, katalogo liburuaren diseinurako eta Ur Biltegia areto handian erakusketea-

ren konposizioaren diseinurako. Erakusketaren izenburua, *Desberdintasunari eta genero-indarkeriari buruzko prozesu psikoanalitiko plastikoa. Identitatea berreraikitzea, 2007-2021* izan zan.

Erakunde hareek beste proposamen batzuk ipini ziran nigaz harremanetan, guztiak nire lana zabalduetako interesgarriak. Hori dala eta, 2020an eta 2021ean, Euskadiko museoan bisita asko izan dodaz nire estudioan eta beste proiektu batzuetan be egin dot lan. Donostiako San Telmo museoan, *Baginen Bagara-Artistas mujeres-Lógicas de la (in)visibilidad* oingo erakusketan parte hartuz. Baita Madrilgo ARCO Arte Garaikidearen Ferian be.

Ikasleak oin urte bikoak dira? Igorreko ikasleak era askotakoak dira zentzu askotan. Erabiltzen dotan metodologiaren espezialitatea da, alde batetik, esperientzia luzeko, ertaineko edo esperientzia bako interesa daukan pertsonearen ezagutzak barneratzea, eta, aldi berean, ezagutza horretatik abiatuta, persona bakoitzaren benetako sorkuntza prozesua garatzea.

Euretako asko doktoreak, lizentziatuak edo Arte Ederretako ikasleak dira. Beste batzuk arkitektoak, argazkilariak, medikuak, gizarte langileak edo irakaskuntza tekniko eta irakaskuntza ertaineko irakasleak dira. Parte-hartzaile batzuek ez dot jakiten ezagutza teknikorik dituen ala ez, baina horrek ez dau esan gura, zerotik abiatuta be, ez dabela jakintza tekniko eta kontzeptual plastikoa edo sormen prozesurako nire metodologia eskuratu ahal izango. Daukagunagaz, edozein mailatatik abiatuta, alde biak (ezagutza teknikoak eta sormen prozesua) garatzen dira,

persona bakoitzak gura eta ahal dauan lekuraino. Jakina, prozesu horrek denporea, kontzentrazioa eta motibazioa eskatzen ditu. Horretan lagunduten dau Igorreko Kultur Etxeak.

Urteotan, Igoerrera, Santurtzitik, Areetatik, Algortatik, Leioatik, Mungiatik, Bilbotik, Basauritik eta Galdakaotik etorri dira ikasleak. Aurten, erdiak Arratiakoak dira, eta beste erdiak Bilbo eta inguruetakoak.

Zure ikasleek be lanean jarraitu dabe geldialdi honetan?

Ikasle askogaz hartu-emonetan jarraitu dot urte bi honeetan. Gehienek artea etenbarik egiten edo biziten jarraitzen dabe. Baina oso deigarria izan da niretzat, eta uste dot eurentzat be harrigarria izan dala Igorreko mintegiari barriro ekiteko egon dan indarra, motibazioa, gogoia eta poza. Aurtengo maila —urte biz egon barik— oso

handia da. Oso baliotsua eta aberasgarria da Igorreko Kultur Etxeko tailerretan sortu eta garatu dan aniztasun eta nortasun artistikoa. Ni neu, arte plastikoetako eta sorkuntza prozesuko artista eta pedagogoa nazan aldetik, oso pozik nago 11 urte honeetan lortutako emaitzeagaz. Emaitza horreek ikusi eta gozatu egin doguz Igorreko erakusketa aretoan egindako erakusketetan. Baina, esango neuke aurten oindino gehiago balorauko dirala arte mintegi honetako ekarpenak. Gogoan daukat proiektua Janire Lopez aurreko zuzendari teknikoari proiektua eskaini neutsanekoa. Hasikeratik emon eutsan babesa proiektuari. Eskertzen deusatz Igorreko Udalaría eta kultura talde osoari proiektuaren alde egiteagaitik, baita be oingo zuzendariari Mikel López de la Pintari, arte mintegietan sinistuten jarraituteagaitik.



Igorreko seminarioko irudiak.

Nahiz eta aurten

salbuespen bat egin eta ikasle bi gehiago hartu, oindino batzuk itxaron zerrendan geratu dira

***Joan Gurutzearen poemen kontzertuak
jakinmina biztu dau Euskal Herritik kanpo be***

Harrezkeroztik kontzertu jira bateri ekin eutsan Mendibilek. Dozena bat kontzertu emon ostean, izandako erantzunagaz harrituta dagoala dino, sano gitxieneko baterako espero eitekean lanagaz espazio handiak bete diralako eta Santiago de Compostela eta Avilatik, Joan Gurutzekoaren poemen euskerazko bersinoen kontzertuan interesa agertu dabelako.

Gai sozialen gaineko kezka handia eukan kooperatiben ideologoak. "Normalean abadeak, abertzaletasuna, Jesukristo eta Jainkoa izaten dabe berbagai, baina bere gai guztiak ziran sozialak. Nik bere mezuak poetizau eta gero musikatu egin dodaz" azaldu dau Mendibilek.

Baina kontzertuak ez dira Gontzal Mendibilek esku artean daukan bakarra. Izan be, oin dala urte bi hasi zan kooperatiben ideologoa izan zan Jose Mari Arizmendiarrirta abadearen gaineko musikala sortzean. Lehendik be, Iparragirre, Arrupe eta Gandiagaren figuretan oinarrituta musikalak eginak ditu.



euskeraz kantetako, hain zuzen
be, bere esanetan, atsegina izango

Euskal Herritik kanpo be sortu dau interesa Joan Gurutzekoaren poemen kantaldiak. Santiago de Compostelatik deitu deutse interesa agertuz eta kantuetako batzuk gaztelaniaz gurako ebezala esanez. Hori ez litzateke arazoa izango, ze poemak metrika berean dagoz eta gaztelaniaz be kantau daitezke. Bitiagioa da, dana dala, Avilatik egin deutsien proposamena; poemak,

Luis Baraiazarrak, Avilako Teresa-
ren lanen itzulpenean egin eban

SAN JOSETAKO BERTSO SAIOA

**martiak 19, zapatua
18:00etan**

**MAIALEN
LUJANBIO**

**UNAI
ITURRIAGA**

**ALAIA
MARTIN**

**AMETS
ARZALLUS**

**DIHANA
IGUARAN**

**JON
MAIA**



FUTBOLA

Arratia futbol taldeak futboleant jokatut gura daben neskentzako topaketak antolatu ditu

Erredakzioa

Martiaren 20an, 10:30ean, Urbietaren zelaian, futboleant jokatutea gustuko daukien 2008 eta 2017 bitartean jaiotako neskek Arratia futbol taldearen Urbietako instalazioak ezetu, proiektuaren barri jakin eta futbolaz gozatzeko entrenamentu teoriko praktikoko bat egiteko aukerea izango dabe.

Klubak, maila guztietako neska futbol taldeak indartu gura ditu. "Arratia futbol taldeak nesken fut-

boleant sinisten dau eta sustatu gura dau" dinoe klubetik.

Aste Santuko kanpusa

Apirilaren 4ra arte, 2010 eta 2017 bitartean jaiotako neska zein mutilak izena emon leikie Aste Santuko kanpusean parte hartzeako. Izena cdarratia@cda-rratia.com helbidean edo 617 803 440 telefonoan emon daiteke. Kanpusa apirilaren 11, 12 eta 13an izango da, 60 euroko prezioan.



AZKOREA

Txapelkunorde geratu ziran Irati Astondoa eta Laiene Pikabea Urrezko Binakako Txapelketan

Erredakzioa

Zeanuriztarrek ezin izan eban txapela jantzi Azpeitiako Izarraitz pelotalekuan, Nerea Sorondok eta Nerea Arrutik minutu bat eta 24 segundo gitxiago behar izan ebe- zalako finaleko lana amaituteko.

Bikote bi neurtu ziran finalean eta lan bi egin behar izan ebazan bikote bakotzak. Lanok amaituten lehenengoak Sorondo eta Arruti izan ziran. Horretarako, 11 mi-

nutu eta 40 segundo behar izan ebazan eta Astondoak eta Pika- beak, oster, 13 minutu eta 04 segundo.

Finalaren balorazioa ona egiten dau Zeanuriko azkolariak. "Indar- rez gu baino gehiago dira Nerea Arruti eta Nerea Sorondo eta txan- da librea eurentzako errazagoa da, ez geunkan aukerarik. Ha-ta guzti be, gu oso ondo ibili ginan, eta ez zan alde handirik egon" azaldu deutso BEGURI Irati Astondoak.



Irati Astondoa eta Laiene Pikabea. Argazkia: Ibon Errazu.

MENDIA

Kilometro Bertikaleko Espainiako Txapelketea irabazi dau Onditz Iturbek

Baita, Euskadiko Atletismo Federazioak antolatutako eta Urretxun jokatutako Euskadiko Trail Txapelketea be.

Erredakzioa

Martiaren 12an jokatut zan Es- painiako Txapelketea KV Las Hurdes (Caceres) proban. On- ditz Iturbe Igorrekoak 47 minutu eta 35 segundotan egin eban hiru kilometro eta erdiko eta 1.000 metro positiboko desni- bela eukan ibilbidea, txapelketea irabaziz. Euskal Selekzioagaz be irabazi eban andrazkoen tal- dekako txapelketea.

Iturbek baino denpora gitxia- goan egin eban lasterketea Laia Montoyak (00:46:28) baina Montoya 23 urtez azpikoa da

eta arautegiak dino 23 urtez azpiko atleta batek ezin daua txapelketa absolutua irabazi, eta Iturberentzat izan zan garaipena. Bigarrena Silvia Lara izan zan 47 minutu eta 57 segundoko denporea eginaz eta hirugarrena Fatima de Diego 48 minutu eta 31 segundoko denporeagaz. Le- moan bizi izandako Virginia Perez izan zan laugarrena.

Lehenengo aldia zan Iturbek ki- lometro bertikaleko proba baten parte hartzean ebana, eta egu- raldi eskasak, gogorrak egin eban, berez gogorra dan probea. "Eguraldi sano sano eskasa egin

dau, euria, hotza eta haizea, be- hin helmugara heldu eta behe- ranzko bidea infernua izan da. Sano gogorra egin jata, guztiz hoztuta, hainbat hipotermia kasu egon dira" azaldu eutsan Iturbek BEGURI.

Hain eguraldi txarra izanda be, sano lasterketa ona egin eban Igorreko lasterkariak. Hasikera- tik hartu eban erritmo polita eta gorantza egin eban, bere laster- ketan ondo zentrauta. Faboritoak Iturbe baino atzerago urten ziran eta, euren erreferentziarik ez iza- tea, akaso lagungarria izan zala ondo zentretako uste dau Onditz Iturbek.



Euskadiko txapela

Aurreko domekan, Euskadiko txapela irabazi eban. Martiaren 6an, Euskadiko Atletismo Fede- razioak antolatutako Euskadiko Trail Txapelketea jokatut zan UZ Trail mendi lasterketan. UZ trail, Urretxu eta Zumarraga artean, 23 kilometro eta 1.600 desni- bel positiboko mendi lasterketea da. Onditz Iturbek irabazi eban 02:20:28ko denporeagaz.

Bigarrena Mayi Mujika izan zan eta Igorrekoak bost minutu atera eutsazan.

PELOTEA

Euskal Herriko Txapelketea Lemoa eta Zeanurira joan da

Erredakzioa

Lemoako Eskupilota Taldeak nagusien mailako txapela, eta Zeanuriko Joko Alaik 22 urtez azpikoena irabazi ebazan hileko lehenengo astegienean.

Hitzordu garrantzitsu bi izan ebazan pelotari arratierrek mar- tiaren 5ean; izan be, Euskal He- rriko Txapelketako finalak jokatut ziran eta txapel bi Arratiara ekarri ebazan. Batetik, Zumarragako frontoian Mikel Aurrekoetxea eta Markel Egañak Lemoako kluba ordezkatzuta nagusien mailan ga- raipen biribila lortu eben Lazkao- ren kontra, 22-07.

Bestetik, 22 urtez azpiko mai- lan, Joko Alai eta Dimako Txu- muluxueta klubeko pelotariak

neurtu ziran Mungiako frontoian. Zeanuriko Beñat Etxeita eta Ma- ren Emaldik irabazi eben, 22-10,

Xabier Rekalde dimoztarra eta Ioritz Arbaiza zeanuriztarraren kontra.



Mikel Aurrekoetxea eta Markel Egaña.

MENDIA

Dana prest Bediako Kolazino Mendi Egunerako

Kolazinoko Mendi Eguneko VI. edizioa martiaren 19an izango da Bedian. Bizkaiko Mendizaleen Federazinoko bakarkako eta taldekako txapelketak jokatu dira han eta Euskal Mendizale Koparako be puntuagarriak izango dira lasterketok.



Erredakzioa

Lasterketa bi egongo dira, 24 km-koa bata eta han Kopa eta Txapelketea maila absolutuan jokatu dira; eta bestean, 16 km-koan, Kadete eta Junior mailakoak. Hamasei kilometroko martxea be badago, izena emon dabenek lasterketako parajeak ezetu dagien. Izen emotea hilaren 12an zarratu zan. Ibilbilde zirkularra daukie lasterketak eta martxeak. Lehenengoak urteten martxalariak izango dira, 08:30ean, 16 km eta 900 metro desnibeleko ibilbidea egiteko. Hurrengoak, 10:00etan, mendi lasterketa luzea (24 km 1.700 m+) egitekoak diranak urtengo dira. Hamasei kilometroko lasterketan parte hartzean dabenak 11:30ean

urtengo dira.

Ibilbidea garbituten

Martiaren lehenengo egunetako euriek, ibilbidea lupeztu eben. "Ibilbidearen garbiketea aurrera doa. Atzen egunotan lokatz piloa dago ibilbidean eta horrek gehiago gogortu dau dana" azaldu deutso BEGITUri Jokin Zabala antolakuntzakoak. Ha-ta guzti be, astegoienero nahikoa jente batu izan dala plazan, ibilbidea egiteko dino Zabalak. Aurtan lasterkariak batera bazkalduko ez daben arren, jai giroa egongo da herrian. Izan be, mendi lasterkari askok, batzuek ezagunak, hartzean dabe parte bertan eta lasterketa bera be urtean-urtean ezagunagoa da. Galdu ezineko zitea bihurtu da zaleentzat.



MENDIA

Mendi Film jaialdiko onena dakar Ganzabal Mendi Taldeak Igorrera

Aurtan be, Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, 2021eko Mendi Film jaialdiko pelikularik onenak ikusteko aukerea egongo da martiaren 31n eta aprilaren 1ean, 19:30ean, Igorreko Lasarte Aretoan. *Action Directe*, *Mendiak 1976*, *Amagana*, *The Traverse* eta *Black Ice* dira film saritu horreek.

Erredakzioa

Martiaren 31n, Zachary Barr-ek eta Josh Lowell-ek zuzendutako *Action Directe* film laburra eta Luis Arrieta-aren *Mendiak 1976* film luzea proiektatu dira. *Action Directe* 9a gradu bidea da eta eskalau dauan lehen andrazkoa, Melissa Le Nevé eskalatzaile frantziarra. Dokumentalak horretarako egindako prestaketea kontetan dau.

Mendiak 1976 film luzea, Luis Arrieta Etxebarri eta Koldo Pastor Yerro nafarren idea batetik sortu zan. Arrietak zuzendu eban filma, Daniel Burguioren gidoiagaz. Dokumentala, mendia gaztetasuna, esplorazioa, askatasun grina eta maitasunaren gainera da. Baina baita oroimena eta adiskidetasunaren gainera be. 1976ko Shakhaur-era (7.116 m) nafar espedizioa, historiara pasau zan euskaldunen "lehenengo zazpi milakoa" legez. Jeitsieran espedizionokide bat hil zan eta beste bat larri zauritu. Historia ezezaguna da, erronka, amets eta abenturaz betetakoa, baina baita minez be. 2021eko Mendiko Film Onenari lkusleen saria eroan eban pelikula honek.

Amagana, The Traverse eta Black Ice

Aprilaren 1erako, hiru film labur dagoz programauta. Lehenengo,



Itziar Zabala.

Itziar Zabala Dimako eskalatzailearen gainera *Amagana* filma da. Honek euskerazko film onenari saria eroan eban 2021eko Mendiko Film Onenari. Jon Goikoetxeak eta Iker Larrañagak zuzendutako 14 minutuko dokumentala da eta bertan, Zabalaren ibilbide profesionala kontetan da. Baltzola inguruan dago filmauta eta Bihotz Gorosperen kantuak eta ahotsak ipinten deusie musikea.

Ben Tibbets-ek zuzendutako *The Traverse* filmak 34 minutu irauten ditu. Valentine Fabre eta Hillary Gerardi atleta bi dira, Haut Route, Chamonix-etik Zermatt-era

eskala barik, egin daben lehenengo andrazkoak izatea gura dabenak. Valentineren senarrak, zeharkaldi hau egiten gizonetzkoen errekorra ezarri eban mendiko istripu baten hil aurretik. Film honek epai-mahaiaren saria jaso eban.

Amaitzeko, ikusi ahal izango da, 2021eko Mendi Filmeko Eskaladako Film Onenari saria irabazi eban Zachary Barr-ek eta Peter Mortimer-ek zuzendutako *Black Ice* 45 minutuko pelikula. Memphis-ko (Tennessee) auzune pobre bateko eskalatzaile baltzak, Montanara joan eta neguko abentura horren barri emoten dau filmak.

laga eta Gaminde nagusitu ziran.

Ainhoa Romero

Promozino mailan, Ainhoa Romero lemoztarrak eta Irati Zabalak be jokatu dabe finala, Miren Gisasola eta Olatz Insaustiri 18-2 irabazi ostean. Nagore eta Leire Galeano ahizten kontra jokatu dabe finala, hilaren 19an, Gabirian.



PELOTEA

Binakako Master Laboral Kutxa Txapelketako finalera sailkatu da Amaia Aldai dimoztarra

Erredakzioa

Amaia Aldai eta Andrea Capellan finalerako sailkatu dira, martiaren 13an Lezon, Maddi Barrokal eta Itxaso Erasunen kontra 22-12 irabazi ostean.

Beste finalaurrekoa be egun be-rean jokatu zan eta Olatz Arrizabalaga eta Enara Gamindek irabazi eben. Finala, martiaren 27an jokatu da Irunen, Aldai-Capellan eta Arrizabalaga-Gaminderen artean.

Finalaurreko partiduen lehen erdian, lau bardinketa egon ziran, atzena hamarnakoa, baina hortik aurrera Amaia Aldairen jokoa nabarmen nagusitu zan. Saketik hasita, partiduari erritmo itzela sartu eutsan eta Barrokal eta Erasun aurkariak ezin izan eutsien jarraitu.

Finala jokatu daben bikote biek lehendik be jokatu dabe bat bestearen kontra. Zezeilaren 6an izan zan Eibarko Astelena pelotalekuan eta orduan Arrizaba-

BERTSOLARITZEA

Lujanbio, Iturriaga, Martin, Arzallus, Iguaran eta Maia Igorreko San Josetako bertso saioan

Erredakzinoa

Aurten lau ez, sei puntako bertsolari egongo dira martiaren 19an, 18:00etan, Igorreko Lasarte Artetoan, Arratiako Bertso Eskoleak antolatutako San Josetako bertso saioan. Maialen Lujanbio, Unai Iturriaga, Alaia Martin, Amets Arzallus, Oihana Iguaran eta Jon Maia izango dira aurten bertsoan jardungo daberen bertsolariak. Bertso eskolako kide bat izango da gai emoi-le lanetan jardungo dana. Arratian bertso zaletasun handia dago eta aspalditik antolatuten dira bertso saio ugari. Hori dala eta, bertsolariak ondo ezetuten dabe Arratia, askotan egoten diralako hemen. Esate baterako, Igorren egongo diran seiretatik lau, Lujanbio, Iturriaga,

Arzallus eta Maia Zeanurin be egon ziran urtailean. Sei izango dira San Josetako bertso saioako bertsolariak, aurreko urteetan baino bi gehiago. "Beste urte batzuetan, abenduan Irudibertsotan antolatu izan dogu eta aurten ez. Horregaitik, hori konpensezako edo, sei bertsolari egongo dira" azaldu deutso BEGITURI Illart Gumuzio Arratiako Bertso Eskolakoak. Arratiako Bertso Eskolea Alkartea da. Kideek, bertsoak botateko batzeaz aparte, urtero bertso saio batzuk antolatuten ditue, euren artean garrantzitsuenak Igorreko San Josetako bertso saioa da. Alkartea bere ibilbideari 1980ko hamarkada amaieran ekin eutsan.



LEHIAKETEA

Umeentzako II. Ipuin Lehiaketean antolatu dau Arteako Udalak

Erredakzinoa

Arteako Udalak Amestu Ipuin Lehiaketean antolatu dau 8 eta 12 urte bitarteko umeentzat. Lanak apirilaren 1era arte aurkeztu daitezke arteakultura@bizkaia.org helbidean. Gaia librea da eta irabazleak 75 euroko bonoa izango dau saritzat. Partaide bakoitzak lan bakarria bialdu ahal dau, izenburuduna, beste lehiaketa batera aurkeztu bakoa, originala eta argitaratu bakoa. Ezizen bategaz sinatuta, ordenagailuz, Word dokumentuan aurkeztu behar dira. Arial letra tipoa 12 tamainuan, folio bi izango ditu gehienez.

Sariei jagokienean, lau sari emongo dira. Irabazleak 75 euroko bonoa; bigarrenak, 60 eurokoa; hirugarrenak 40koa eta laugarrenak 30 eurokoa jasoko dau saritzat. Euskerea eta literatura bultzatzen Lehiaketearen helburua, "irakurle txokoa eta beste ekintza batzuek batera, euskal literatura irakurketa eta umeen artean idazteko ohiturak bultzatzea da" azaldu deutso BEGITURI Gorka Beitia zinegotziak. Igaz 9 ipuin aurkeztu ziran eta Luka Orbegozok irabazi eban lehenengo saria.

MUSIKEA

Enrique Villarreal "El Drogas"ek kontzertua emongo dau Areatzan

Martiaren 26an, 20:00etan, Areatzan izango da El Drogas Akustik Fraktion jirako saioa.

Erredakzinoa

Enrique Villarrealen 189 escritos con una mano enferma poema liburua eta El largo sueño de una polilla disko barria aurkeztuteko da Akustik Fraktion jirea. Kantu barriak eta bere ibilbideko beste kantuek ezagun batzuk be eskainiko ditu Iruñeko musikariak Areatzan. El Drogas Akustik Fraktion da bere proiekturik personalena. Izena alde aurretik emon behar da Areatza Urtaroka webgunean edo 94 673 90 10 telefonon. Aforoa bete ezker Areatzako 16 urtetik gorakoek eukiko dabe lehentasuna. 1980ko hamarkadan, Barricada talde mitikoan egin zan eza-guna Enrique Villarreal. Hiru hamarkadetan, 23 disko argitaratu ebazan taldeak, eurretako bi Por instinto (1991) eta Balas blancas

(1992) platinozko diskoak izan ziran, eta beste lau, urrezkoak. Txarrena eta La venganza de la abuela taldeak be beste bost disko kaleratu ebazan, eta El

Drogas taldeagaz, beste sei. Barricada 1982an Iruñeko Txantrea auzoan sortutako rock musikako talde bat izan zan, Euskal Rock Erradikalaren mobimentukoa.



MUSIKEA

Txalaparta kontzertu diferentea eskainiko dau Bihotx taldeak Lemoan



Erredakzinoa

Norabide guztiak izeneko txalaparta kontzertua eskainiko dau Bihotx-ek martiaren 25ean, 19:00etan, Lemoako Kotxepin Kultur Etxean. Txalapartearen historia kontauko dabe umorez, antxinakoenetako soinuetatik gaur-gaurko musikara arte, erritmo desbardinak joko ditue Bihotx taldekoek kantuek

eta jantzakaz lagunduta. Gema Inesek, Ixiar Jauregik eta Lara Mitxelenak osotuten dabe Bihotx taldea, 2016an sortutakoa. Euren bizitzan txalapartea agertu orduko, urteak eroian musika munduan, Gemak gitarrea jotzen; Larak, akordeoiagaz eta Ixiarrek perkusinoa. Txalapartea alkatu ebazan hirurak eta oin Norabide guztiak lana aurkeztuten dabiz.

IPUINAK

Ikusi, entzun eta kantetako ipuin saioa eskainiko deutse Ines Bengoak txikerrenei Lemoako Kultur Etxean

Erredakzinoa

Martiaren 31n, 18:00etan, Ines Bengoa ipuin kontalariak Kontu kantari ipuin saio musikatu eskainiko dau 3 eta 5 urte bitarteko umeentzat Kultur Etxean. Ipuin kontaketea osoagoa da kantua eta musika gehitu ezker, "txikienek ipuinez gozatzen dabe zentzu guztiakaz, horregaitik kontau, kantau eta berben bidez olgetan gara eura-kaz. Berbez, soinu eta abestiz osotutako ipuin saioa da hau, gurasoez lagundutako haurrentzako" azaltzen dau Bengoak bere webgunean. Ines Bengoak 20 urte daroaz ipuin kontalaritzan eta ume zein nagusientzako kontakizunak egiten ditu.

MUSIKEA

Jon Maiaren letragile ibilbidea jasoten dauan kontzertua Igorren
Goi mailako musikariez osotutako talde bategaz, Jon Maia bertsolariak *Kantu bat gara* izeneko kontzertua eskainiko dau martiaren 25ean, 20:30ean, Igorreko Lasarte Aretoan.

Erredakzinoa

Igaz, 30 urte beteten ziran Jon Maia Soriak Negu Gorriak taldeari idatzi eutsala *Lehenbiziko bala* kantuaren letrea. Letragile moduan Maiak egindako lehen lana izan zan hori eta atxakia horregaz, disko-liburu bat argitaratu eban igaz, *Kantu bat gara* izenpean, bere letragile ibilbidearen antologia bat eskainiz. Lan hori aurkezteko jiran, Jon Maiak berak abestuko ditu kantuok. Korrika Kulturaleko kontzertua da hau.

Jon Maia
Hogeta hamar urteotan, Euskal

Herriko izen handiko hainbat musikari eta talderen kantuen letrak egin ditu bertsolari zumaiaarrak: Negu Gorriak, Gozategi, Gari, Benito Lertxundi, Anari, Mikel Urdangarin, Ken zazpi, Soziedad Alkoholika, Pirritx eta Porrotx, Pello Reparaz, ETS eta abar. Gaur arte 200 bat kanturentzako letrak egin ditu eta musika talde biren sortzaile eta abeslari izan da: Karidadeko benta eta oin oholtzetan ikusi daiteken Hezurbeltzak taldea.
Idazle, gidoilari, dokumentalgile eta kazetari lanetan be jarduten dau Jon Maiak.



LIBURUA

Urko Garamendi: "85 urtez bahituta izan dan antzezlan argiratzeagaz askatasunaren alde aritu ziranak omendu gura izan dodaz"

Erredakzinoa

Urko Garamendi kazetari lemoazarrak *Homenaje a los pueblos libres. Una gesta heroica* liburua aurkeztuko dau martiaren 18an, 18:00etan Lemoako Kotxepin Kultur Etxean.
Liburuak zati bi ditu, José Marcos Blazquez izeneko madrildar errepublikazale batek idatzitako lan originala eta Garamendik berak idatzitako autorearen biografia eta testuinguru historikoa.
Homenaje a los pueblos libres kultur sormenaren bitartez egindako aitortza dala dino Garamendik. "Modu arinean idatzita dago, kazetari hizkuntzatik lar urrundu barik. Gerra sasoiko pasarteak lotuz, istorio bat kontau gura izan dot eta batez be belaulaldi gazteenak hartu dodaz kontuan, oin dala ez hainbeste denpora, herri honek bizitakoak ezetu dagiezan. Egun, guztiz naturala da ikastolara edo euskal unibersidadera joatea, euskeraz berba egitea, herri lez hainbat erakunde izatea edo partidu batera ikurriña garrian lotuta joatea, baina horren atzetik gauza asko dago".
Lemoakoaren arabera, antzezlanaren autorea espainiarra eta errepublikazalea bazan be, guztiz konprometiduta egoan Jaurilaritzeagaz, "politikari jeltzaleengan konfidantza osoa eukan eta Agirre Lehendakaria izan zan sasoi haretako politikarien artean gehien miresten ebana". Salamancako Gerra Zibilaren artxiboan isildu arazota egon dala antzezlan, eta lana eta autorea ezetuten emotea gura

izan dau Lemoakoak.

Marcos Blazquezen semearen hitzaurreagaz
Antzezlan ezetu arazoteko konpromisoa hartu ebanean, herri askeen alde aritu ziranen omenez planteau eban lana Garamendik. "Gure historiaren kapituluak jakiten emoteko irrikak mobidu ninduan, amamaren moduan kartzelan amaitutako andra konprometiduen historia, nire aitita biak lango lehen gobernuko gudarien eta Ertzainen konpromisoa edo nire familiaren parte handi baten modura beste herrialde batera emigrau behar izan ebenen indarra".
Liburuak, José Marcos Blazquezen semearen hitzaurrea dauka. Juan Manuel Marcos, idazle famadua da Paraguayn, *El invierno de Gunter* eleberriaren idazlea, eta kultura arloko personaia eza-guna da. "Asko eskertu dau nik egindako lana. Ez eban ezetuten bere aitaren obra hau".
Gontzal Mendibilen abesti bat be badauka liburuak, burdin hesiari buruzko abestia da. José Marcos 19 urte zituanean, Euskal Herrira etorri zan, 1936an, Bilboko burdin hesian lan egitera. Carlos Baudilio "Baudi" margolariaren triptikoa be badago, antzezlanean oinarrituta hiru margo egin ditu liburuan sartzeako.
Jatorrizko testua Espainiako Gerra Zibilaren Artxibo Orokorra izenekoan dago, Salamancan. Egun, Memoria Historikoaren Dokumentazio Zentroa da. "Liburua zabaltean gustauko litxakit konziente izatea norbaitek bere sasoiaren ez



ebala gura guk liburu hori irakurterik edo bertan dagoan antezlan taula gainean ikusterik. Liburu honek biltzean dauan antzezlan zortzi hamarkada baino gehiagoz egon da ostenduta. Zensurau egin zan" azpimarratu gura izan dau idazleak.

Urko Garamendi
Urko Garamendi Meabe Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziadua da eta bere ibilbide profesionala telebistan hasi eban, ETBko albistegietan, hain zuzen be. Frankismoari eta Lehen Eusko Jaurilaritzeari buruzko dokumentalen gidoilari eta zuzendari moduan egin eban lan eta *Memoria de la represión Franquista*, "Euskal Herria 1936: Nazio bat mugan", *Homenaje a los pueblos libres* proiektuan sartzeako abiapuntua izan zala dino. Hogei urte baino gehiagoko ibilbidea dauka prensa idatzian eta digitalean, irratan, ikus-entzunezko produkzioan, ekitaldien produkzioan eta komunikazio instituzional eta politikoan.

DUNBA

Guggenheim-era bisitea!

Zeanuriko eskolako LH5 eta LH6ko ikasleak
Zeanuriko LH5 eta LH6ko ikasleak Bilbora joan ginan Guggenheim museoa ikusten. Bertan, ordu bat eta erdiko aurkezpena euki genduan gida baten eskutik. Bisitea andra batzuen artelanen erakustaldia ikusteko izan zan, *Emakumeak abstrakzioz* eukan izenburu. Gidak oso ondo azaldu euskun moduan, arte abstraktuagaz zerikusia eukien

artelanak. Arte abstraktua forma bako artea da, hain zuzen be. Erakusketearen xedea andra artistek abstrakzioari historian zehar egin deusien ekarpenaren barri jakitea zan.
Erakusketan zehar 100 andra artistatik gorako 400 lan baino gehiago ikusteko aukerea egoan, baina guk horreetako batzuk bakarrik ikusteko izan genduan denporea. Baita, arte abstraktu hori egiteko modu desbardinak ikasteko aukerea be izan gen-



duan. Adibidez, margotutako artelanak, etxeko alfombra, lanparakaz egindako soineko bat, argazkiak, eta abar.
Andra baten teknika adibidez

izan zan begiak zarratutea eta espirituak bere besoa gidatzen ixtea. Hori kontuan izanda eta azalpenak entzun ostean gure txandea izan zan! Museoaren gela baten



artelan abstraktuak egin genduzan teknika bardina erabilita. Hau da, begiak estalita arkatzagaz forma eta marra desbardinak marraztu genduzan. Begiak zabaldu eta gero, lerroen arteko hutsuneak koloreak konbinatzaz margotu behar izan genduzan. Amaitzerakoan konturatu ginan geu be izugarritzko artistak garala!

AGENDEA

MARTIAK 15
ARANTZAZU

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura Udal Liburutegia zabalik.

ARRATIA

Martiaren 21ean izango dan Basoen Nazinoarteko Eguna dala-ta grabau bideo bat 5-10 segundokoa baso bizien aldeko errazoiakaz. Bialdu bideoa 676 767 516 telefonora 18a baino lehen.

AREATZA

Udabarri osoan zehar medi ibilbide autogidatua Urigoiti (Orozko)-Aldabide-Sintxita. Zailtasun txikia. Parkeko ur-jauziak ezetuteko aukerea. Informazino gehiago Parketxean. 94 673 92 79 eta gorbeia.park.naturala@bizkaia.eus.

Hilaren 26ko El Drogas Akustik Fraktion, Enrique Villarreal "El Drogas"en kontzerturako izen emotea zabalik. Izena Areatza Urtaroka webgunean edo 94 673 90 10 telefonoan emon.

ARTEA

Hilaren 30era arte, 8 eta 12 urte bitarteko umeentzat Amestu II. Ipuin Lehiaketea. Lanak arteakultura@bizkaia.org helbidera bialdu.

BEDIA

16:30etik 19:30era, liburutegia zabalik, astelehenetik barikura.

16:30etik 19:30era, hilaren 16ra arte, Txiki-Txokorako, udalekuetarako, Uda Gaztean eta Ludosport-en izena emoteko epea liburutegian.

18:00etan, Tere Maldonadoren berbaldia *Egungo feminismoaren zereginak* eskolan.

DIMA

16:30etik 19:30era, astelehenetik eguenera liburutegia zabalik.

IGORRE

09:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 20:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik. Goizetan ez dago mailegu zerbitzurik.

08:00etatik 22:00etara ikasgela zabalik. Aurretik Kultur Etxera deitu behar da zitea eskatzeko 94 673 62 51 telefonoan.

Apirilaren 1era arte, Ganzabal Mendi Taldearen *Mendirik mendi* argazki erakusketea Kultur Etxean.

Apirilaren 4ra arte, Aste Santuko futbol kanpusean izena emoteko epea cdarratia@cdarratia.com helbidean edo 617 803 440 telefonoan emon daiteke. Kanpusa apirilaren 11, 12 eta 13an izango da, 60 euroko prezioan.

LEMOA

18:30ean, eraso sexisten kontrako konzentrazinoa plaza gorrian. Aski da! Erasotzaileak sutara! Iemapean.

08:00etatik 21:00etara, astelehenetik domekara Kotxepineko ikasgela zabalik.

16:30etik 19:30era, liburutegia zabalik astelehenetik barikura Kotxepin Kultur Etxean.

Hilaren 19ra arte, Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, GPSaren oinarritzko erabilerea Ganzabaleko lokalean.

ZEANURI

Hilaren 20ra arte, Gorbeia Suzien 31 kilometroko lasterketan izena emoteko epea zabalik gorbeiasuzien.eus webgunean.

ZEBERIO

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

Zemendiaren 30era arte, III. Argazki Lehiaketan parte hartzeako aukerea. Gaia: baserriko lanak. Argazkiak udal webgunean horretarako berenberegi sortutako espazioan ipini.

MARTIAK 17
AREATZA

19:00etan, Jai Batzordearen batzarra. Udaletxean.

ZEANURI

18:00etan, Mazala taldeak antolatuta, *Indarkeria sinbolikoa, patriarkatu kamuflatua* ikastaroa. Kultur Etxean.

MARTIAK 18
ARANTZAZU

19:00etan, Udalak antolatuta La Basuren kontzertua Herriko Tabernan.

AREATZA

18:00etan, Arratiako Berbalagunek antolatuta, *Uhinak* dokumentalaren emonaldia eta ostean barriketaldia Korrikaren inguruan. Korrika materiala salgai egongo da. Udal Aretoan.



20:00etan, Four Seasons taldearen kontzertua The Quiet Corner tabernan.



St Patrick's weekend.

LEMOA

18:00etan, Urko Garamendiren *Homenaje a los pueblos libres. Una gesta heroica* liburuaren aurkezpena Kotxepin Kultur Etxean.

ZEANURI

19:00etan, *Liztor asiarra eta erleak* berbaldia. Kultur Etxean.

ZEBERIO

18:00etatik aurrera, Korrika jaia. Aurkezpena, bertsoak, play-backa, grafitia, Korrika erropakaz pasarelea, jatekoa eta edatekoa eta Nafarroa Kantuz, herriko plazan.

MARTIAK 19
AREATZA

19:30ean, Areatzako Bandaren kontzertua eleizan.

21:00etan, Fer Zaparen kontzertua The Quiet Corner tabernan. St Patrick's weekend.

BEDIA

Kolazinoko Mendi Eguna. 08:30ean, mendi martxea; 10:00etan, 24 km-ko lasterketea eta 11:30ean, 16 km-ko lasterketea. Plazan.

IGORRE

18:00etan, San Josetako bertso saioa. Maialen Lujanbio, Unai Iturriaga, Alaia Martin, Amets Arzallus, Oihana Iguaran eta Jon Maia. Lasarte Aretoan. Korrika Kulturalaren barruan antolatutako ekintza.

ZEBERIO

11:00etan, *Inausketa fruta arboletan* tailerra Unai Onaindiaren eskutik. Plazan.

MARTIAK 20
AREATZA

10:00etatik 14:00etara, merkadua, "Herri bat, merkatu bat". Gudarien plazan.

DIMA

11:00etan, Txikitatik askatasunera

umeen jaia: suziri erraldoia, tailerrak, txokolatea, herri kirolak; 13:00etan, antzerki ikuskizuna Antxo eta Pantxaren eskutik *Antzarrekin dantza*. Frontoi txikian. AskeBizi Arratien eta Dimako Guraso Elkarateak antolatuta.

IGORRE

10:30ean, 2008 eta 2017 bitartean jaiotako nesken futbol topaketak Urbietza zelaian.

17:00etan, zinea *Aibo* (euskeraz); 19:30ean, *Belfast* Lasarte Aretoan.

LEMOA

19:00etan, Irantzu Varelaren *Villana* bakarriketea Kotxepin Kultur Etxean.

MARTIAK 21
ARRATIA

Basoen Nazinoarteko Eguna. Jasotako aldarrikapenakaz bideo bat egingo dabe Makatzak Arratiako Ekologistak taldekoek.

DIMA

18:00etan, *Hitanoa Dimen* Gotzon Aurrekoetxearen eskutik ikastaro praktikoa eskolan. Abizariet antolatuta.

LEMOA

17:00etatik 20:00etara, Ilgoran Arratiako Andren Jabekuntza Eskoleak antolatuta, *Locas por las herramientas* ikastaroa Paz Carbajosaren eskutik liburutegi zaharrean. Astelehenetan maiatzera arte.

MARTIAK 24
ZEANURI

18:00etan, Mazala taldeak antolatuta, *Indarkeria sinbolikoa, patriarkatu kamuflatua* ikastaroa. Kultur Etxean.

MARTIAK 25
AREATZA

18:00etatik 20:00etara, Ilgoran Arratiako Andren Jabekuntza Eskolako *Cómo estar en grupos y no morir en el intento* tailerra Mar Garroteren eskutik. Udaletxean.

IGORRE

20:30ean, Jon Maiaren *Kantu bat gara* kontzertua Lasarte Aretoan. Korrika Kulturalako ekintza.

LEMOA

19:00etan, Bihotx taldearen *Norabide guztiak* txalaparta kontzertua Kotxepin Kultur Etxean.

MARTIAK 26
ARANTZAZU

08:30ean, Arginatx Mendi Taldeak antolatuta, Urrekoatxara urtekerea.

AREATZA

11:00atik 14:00etara eta 15:30etik 18:30era, Ilgoran Arratiako Andren Jabekuntza Eskolako *Cómo estar en grupos y no morir en el intento* tailerra Mar

Garroteren eskutik. Udaletxean.

20:00etan, El Drogas Akustik Fraktion, Enrique Villarreal "El Drogas"en kontzertua komentuan.

ARTEA

21:00etan, bertso afari feministea Saioa Alkaiza eta Onintza Enbeitagaz Ustrukuen.

DIMA

19:00etan, Ixabel Agirresarobe ipuin kontalariaren *Ezina ekinez egina*. Eskolako kamaran. Korrika Kulturalako ekintza.

LEMOA

12:00etatik aurrera Korrika eguna. Sagardao dastaketea Hartaguzti Lemoako sagardaoa, bazkaria danon artean etxetik eroandakoa alkarbanatuten, musika jantza poteoa Durundibarri taldeagaz, jolasak, Korrika denda...

MARTIAK 27
IGORRE

17:00etan, zinea *En busca de la magia doremi*; 19:30ean, *Muerte en el Nilo* Lasarte Aretoan.

MARTIAK 28
BEDIA

16:30etik 19:30era, aprilaren 8ra arte, aprilaren 29an izango dan *Azalerako ipuinak* umeentzako tailerlean izena emoteko epea eta Jauregi auzorako hormairudi aukeretan eretxia emotekoa. Liburutegian.

DIMA

18:00etan, *Hitanoa Dimen* ikastaro praktikoa eskolan Gotzon Aurrekoetxeagaz. Abizariet antolatuta.

LEMOA

17:00etatik 20:00etara, Ilgoran Arratiako Andren Jabekuntza Eskoleak antolatuta, *Locas por las herramientas* ikastaroa Paz Carbajosaren eskutik liburutegi zaharrean. Astelehenetan maiatzera arte.

MARTIAK 29
DIMA

Arrastian, *Zorionak Marimotots!* emonaldia frontoain. Korrika Kulturalako ekintza.

MARTIAK 30
BEDIA

17:30ean, Liburu-maleta ibiltaria Onditz Mendizabalegaz liburutegian.

MARTIAK 31
BEDIA

17:00etatik 19:00etara, Korrika tailerrak ludotekan. Korrika Kulturalako ekintza.

IGORRE

19:30ean, Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, Mendi Amesgarriak, Mendi Tour 2022, Mendi Film jaialdiko *Action Directe* eta *Mendiak 1976* pelikulak Lasarte Aretoan.

LEMOA

18:00etan, 3 eta 5 urte bitarteko umeentzat, Ines Bengoaren *Kontu kantari* ipuin kontaketa musikatua Kotxepin Kultur Etxean.

APRILAK 1
BEDIA

17:15ean, tailerrak eta Korrika Txiki; 19:00etan, *Zirkoteke* ikuskizuna eta 20:00etan ardao dastaketea. Korrika Kulturalako ekintza.

IGORRE

19:30ean, Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, Mendi Amesgarriak, Mendi Tour 2022, Mendi Film jaialdiko *Amagana*, *The Traverse* eta *Black Ice* pelikulak Lasarte Aretoan.

KOMIKIA

Kailo Ren



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK ETXEA SALGAI
70 m²ko pisua salgai Diman, beheko solairua. Gas naturala, logela 2, komun 2, egongela-jangela, suetea eta garajea. Altzairuz horniduta dago. 150.000 euro, negoziagarria. Telefonoa: 652 704 879.

SALTZEAN DODAZ
Saltzean dodaz altzari barriak eta erdibarriak. Argazkiak bialdu daikedaz edo etorri zaitezkie ikusten. Telefonoa: 666 135 596.

GARAJEA ALOKATZEN DOT
Garajea alokatzen da Igorreko Elexalde kaleko 56 zenbakian. Eleiza aurrean. Telefonoa: 94 631 60 22.

LANA INGELES IRAKASLE BILA
Ingelesa dakian persona baten bila nabil, batxillergoko lehenengo mailan dagoan ikasle bateri klaseak emateko. Interesdunek deitu 620 607 952 telefonora.

KLASEAK EMOTEN DODAZ
Lehen Hezkuntzako ikasleentzat Matematika, Euskera eta Gaztelania klaseak emoten dira online eta aurrez aurre. Kontakturako telefonoa: 646 447 988.

SUKALDARI BILA
Zaztaparrak-ekoak udaleku itxietarako sukaldari bila gabiz. Abuztuaren 1etik 12ra bitarteko lana. Informazio gehiago gura izan ezkerro idatzi zaztaparrakudalekuixiak@gmail.com-era.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 AEK-k emondako bina sarrera Kantu bat gara kontzerturako.

Sebas Angoitia (Artea)
Joana Etxebarria (Igorre)



2 Lemoako Udalak emondako bina sarrera Bihotx-en kontzerturako.

Gotzone Amuriza (Igorre)
Edorta Alonso (Zeanuri)



begitu

Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUk 19 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus

umean medu
seu
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa: 94 631 92 96 • seumedu@hotmail.com

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
Tlf. 94 631 92 00

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARDO

begitu

ASEGURUAK:
AUTOAK
ETXEBIZITZAK

ZUZENBIDE
AHOLKULARITZA:
LAN ZUZENBIDEA
ZERGAK
KONTABILITATEA

DENDAK
ISTRIPUAK
BIZITZA...

Tlf. 94 673 71 41 • 94 673 70 55 • 94 612 11 96 • Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3. beheko - Igorre (Bizkaia)

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
Tlf. 94-673-70-87
Fax. 609-79-40-54

NAIARA HORTZ KLINIKA
Lehendakaria Agirre, 19
48140 Igorre
94 631 52 26

Pinturas Anaitia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

begitu
eus



korrika.eus

22.korrika

HITZEKIN

MATERIALA HEMEN SALGAI:

Korrika dendetan, AEKren euskaltegietan eta www.korrika.eus atarian.

Amurriotik Donostiara
2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era



IPINI ZURE IRAGARKIA BEGITU!

Informazinoa: **649 979 115** eta inigoirua@begitu.eus



LEHOA
946 31 44 06
ZABAL@ALKIZABAL.NET

ALKIZABAL
LEHOA - BASAURI
www.alkizabal.net

BASAURI
946 51 05 99
BASAURI@ALKIZABAL.NET

MAKINEN ALOKAIRUA ETA SALMENTA

HIKOKI

filippini Nilfisk JCB MANITOU CTX CONTAINEX TeknoDistribika HIKOKI POWER PRODUCT GENEYR MASTER INSTANT UPRIGHT